

HIRIGUNE HISTORIKOA BABESTEKO ETA ZAINTEKO PLAN BEREZIA

**BEHIN-BETIKO ONESPENAREN
AGIRIA**

2015eko OTSAILA

KATALOGOA



KATALOGOA

ERMUKO HIRIGUNE HISTORIKOA BABESTEKO ETA ZAINTEKO PLAN BEREZIA

Behin-Betiko Onespenaren Agiria. 2015eko Otsaila

AURKIBIDEA

1. ERAIKINEN KATALOGOA.....	1
1.1 1 KATEGORIA. MONUMENTU HISTORIKO ARTISTIKOAK	1
1.1.1 SANTIAGO ELIZA	1
1.1.2 VALDESPINA MARKESA JAUREGIA	4
1.1.3 LOBIANO JAUREGIA	9
1.1.4 ZARRA JAUREGIA (IZELAIETA 14).....	13
1.2 2 KATEGORIA. INTERES HISTORIKO ARTISTIKODUN ERAIKINAK.....	15
1.2.1 TORRETA ETXEA.....	16
1.2.2 ZARRA JAUREGIA (IZELAIETA 14 BIS).....	17
1.3 3 KATEGORIA. INGURUMEN INTERESEKO ERAIKINAK.....	17
1.3 3 KATEGORIA. INGURUMEN INTERESEKO ERAIKINAK.....	18
1.3.1 ERDIKOKALE, 5.....	18
1.3.2 VALDESPINA MARKESA KALEA, 3 eta 5	19
1.3.3 GOIENKALE, 2	20
1.3.4 SANTIAGO PLAZA, 1	21
1.3.5 ALDAPAKUA BASERRIA (ERDIKOKALE 1 ZEHARKALEA).....	23
1.3.6 EMAKUMEEN EXTEA (IZELAIETA 12)	24
1.4 4 KATEGORIA. INGURUMEN INTERESEKO MULTZOAK	25
1.4.1 ORBE KARDINALA PLAZA, 4, 5, 6, 7 ETA 8 ZENBAKIAK	25
1.4.2 ERDIKOKALE 3, 7, 9, 11, 13, 19 ETA 21 ZENBAKIAK.....	28
1.4.3 VALDESPINA MARKESA KALEA, 6.....	30
1.4.4 IZELAIETA KALEA, 2, 4, 6, 8,10 ETA ATZEALDEAK	31
2. ESPAZIO PUBLIKOEN KATALOGOA.....	32
2.1 BABES BEREZIKO ESPAZIOAK	32
2.1.1 ORBE KARDENALA PLAZA.....	33
2.1.2 VALDESPINA PARKEA	35
2.2 LEHENTASUNEZKO INTERESA DUTEN IBILBIDEAK	38
3. ARKEOLOGIA ONDAREAN KATALOGOA.....	40
3.1 INBENTARIATUTAKO KULTURA ONDASUNAK	40
3.1.1 ERMUKO HIRIGUNE HISTORIKOA	40
3.2 BALIZKO ARKEOLOGIA GUNEAK	42
3.2.1 TORRETA ETXEA.....	42
3.2.2 MATXIN ERROTA	43
3.2.3 ETXE ZARRA (JAUREGIA)	44

1. ERAIKINEN KATALOGOA

1.1 1 KATEGORIA. MONUMENTU HISTORIKO ARTISTIKOAK

Aitortua zaien historia- eta arte-balioengatik halako kalifikazioa jaso dutenak dira.

Kategoria honetako eraikinek babes integralaren maila izango dute esleituta, hau da, gorde egin beharko dituzte egitura eta antolamendu orokorra, oso-osorik mantenduta kanpoaldeko itxura eta berezko elementu arkitektonikoak, hala nola atariak, eskailerak, baoak, itxiturak, etab. Orain, erabilera berrietarako egokitze-obra egin daitezke, aipatu elementuei ez eragitekotan.

Egokitze-obra horiek honakoetara mugatuko dira:

- Zaharberritzea.
- Elementuak berritzea.
- Trenkada-multzoak aldatzea, egitura jarkikorrari eta oinarri-tipologiari eragin gabe.
- Instalazioak modernizatu eta eguneratzea.
- Gehitutako obra eraistea.

MONUMENTU HISTORIKO ARTISTIKOAK

1. Santiago Eliza.
2. Valdespina Markesa Jauregia.
3. Lobiano Jauregia.
4. Etxe Zarra Jauregia (Izelaieta 14)

1.1.1 SANTIAGO ELIZA

Eraikin gotikoa zen hasieran, baina barroko aldian (1620) berreraiki egin zuten. Ez dago hasierako ezaugarriei buruzko daturik.

Eliza eder eta zabala da, fabrika-harrian egina, eta nerbiodun gangaz estalitako nabe (125x61 oin) bakar bat duela.

Bere barruan aldare nagusiko erretaula nagusitzen da, barroko estilokoa –churriguereskoa– eta Santiago Apostolua buru duela. Organo-kutxa ere estilo berekoa da, XVIII. mendean egindakoa. Organoa dagoen koroa ganga nerbiodun baten gainean dago, eta azpian bi kapera ditu.

Batean Orbe familiaren armaria agertzen da, eta bestean On Andres Orbe Larreategiren marmolezko hilobia dago, Bartzelonako apezpiku eta Valentziako artzapezpiku izan zenarena, hain zuzen; Inkisidore Nagusi eta Gaztelako Kontseiluaren gobernadore ere izan zen, eta hark ordaindutakoak dira Elizako obrak.

Kanpandorrea ojiba-arku baten gainean dago, eta 1738an eraiki zuten churrigueresko estiloan. Eliza, gainera, aberatsa da erlikia, bitxi eta beste apaingarri batzuetan.

Elizaren fabrikak, gaur egun, beste eraikin bat du erantsita, joan den mendearen erdian egina. Eskola eta parrokia-bulegoak izateko egin zen, baina kalte handia egiten dio tenpluaren irudi senduari.


Seinalatu behar da Santiagoko Elizak badaukala gehitze bat, bat egiten duena gaur egungo parrokiaren aretoarekin, eraikuntzak jasotako erreformen ondorio bezala, inbadituz elizaren hegoaldeko eta ekialdeko fatxadak, distorsionatuz bere oinplano basilikala elizaren forma aldatuz. Gehitze hau kontsideratzen da elementu umiliagarria, beharrezkoa izanez bere eraistea, ahalbidetuz elizpearen kontserbazioa beheko oinplanoan eta gehitze txiki bat balio dena euste bezala erlijio erabilpenari.

Gaur egungo areto parrokiak gehitu dira Plan Orokorren gestio eten esparruaren barruan, AOD-01 OKINZURI bere eraistea egiteko, ahalbidetuz elizpearen kontserbazioa beheko oinplanoan eta gehitze txiki bat balio dena euste bezala erlijio erabilpenari, bitartean, gainontzeko lurzoru izango da oinezkoentzat espazio librea.

PROPOSATUTAKO JARDUKETA

- ERABILERA: Erlijiosoa (oraingo erabilerari eutsiko zaio)
- EGINGO DIREN OBRAK: Barruan, mantentze- eta zaintze-lanak. Kanpoan, eraitsi egin beharko da erantsia zaion eraikina. Soilik behe solairuko ataria gordeko da, eta gehigarri txiki bat baino ez da eraikiko, erlijio erabilerarako.





1.1.2 VALDESPINA MARKESA JAUREGIA

XVIII. mendearen lehen herenean eraikitako eraikin harrigarria da, erre egin zuten 6 Urteko Guduan Rodil jeneralaren aginduz, jabea –Valdespinako markesa– karlista garrantzitsua zelako. Urte batzuk geroago haren semeak eraberritu zuen.

Monumentu-obra da benetan, churrigueresko estiloan eraikia. Bandokideen Dorretxeetako jauregien ohizko adibidea da; lau etxe-aurre ditu. Nagusiena, zorrotza eta itzela, harearrizko harlanduz egina dago guztia, eta liluratu egiten du bere soiltasun handientsu nola dotoreaz. Ate nagusia, behe solairuko leihoak, bi solairutan banatutako hamar balkoiak eta bere erlaitz airoa Churriguera estiloan dekoratuta daude, baina neurritz eta dotoreziaz. Etxe-aurre nagusiaren ertzetan bi ezkutu agertzen dira errezelaren azpian; armarri horiek fundatzailearen artzapezpiku-armekin izan ziren azkenean zizelkatuak.

Gainerako etxe-aurrekoetatik, harlangaitz zarpiatuan eta harlanduzko kantoiz daude eginda, eta atzekoa nabarmentzen da. Aireko pantaila zoragarria da hori, bao zabaleko hiru erregistrok zulatzen dutela eguerdiko argi sartaldetar osoa jasotzeko, eta erregistro horiek formula anitzetan diseinatutako logiatarara ematen dute. Azpiko etxe-aurreak hiru bao ditu; behekoenak, axialak, ibaira ematen du zuzenean; bigarrena, berriz, galeria handi bat da, erdi-puntuko bost baoz osatutakoa burdineriazko karelak dituen dadoen gainean; hirugarrena palladiar atalen konponbide polita da, erdi-puntuaren (beheko erregistroko atalekin lerrotuta) eta leihoburu eta ateburu estueneren konbinazioa.

Erlaitza harrizkoa da, landare-motiboetako harburu landuaz.

Tipologiari erreparatuta, duen solairu- antolaketetatik, XVIII. mendeko jauregiko bizitegi-eraikin garatuenei dagokiena da.

Espazio-egitura hulgune handi batean dago oinarrituta, bizigelezko eraztun batez inguratutik, perimetro osoan. Bai hulgunea bai eraztuna altxaera bertsuan daude eraikita beheko solairutik goikoraino.

Hulgune nagusia eskailerarena da, benetan eder-ederra, dena harlandu lan artetsuaz egina, eta ikusten ez diren euskarri batzuen gainean eraikita. Baoa harlanduzko hormaz forratuta dago, eta burudun batzuk ateratzen dira bertatik, jauregiko gela barrualdekoenak argia ikus dezaten. Eskailera honek lehen solairura baino ez du ematen, hulgunearen gainerakoa argia eta aireztapena da. Sartaldeko etxe-aurrearen erdian den eskailera batek bi solairuak elkartzen ditu albotik. Eskailera bikain horren begia petxina gainean kokatutako kupula batek estaltzen du, 20 m inguruko altueran. Kupula, bere aldetik, linterna batek estaltzen du.

Eraikinaren barneko irudiari erreparatuta, garbitasun handia dario multzo osoari, dela eskaileraren trazadurarengatik dela ezinhobeto banatutako bizitegiaren kalitateagatik. Euskal Herriko bordondar arkitekturaren ereduak ale galanta da.

Ezezaguna da eraikin honetako planoen egilea. Obra-maisua On Jose Zuaznabarko izan zen, eta 1759. urtean bukatu zuen eraikitzea.

PROPOSATUTAKO JARDUKETA


- ERABILERA: Udaletxea.

- EGINGO DIREN OBRAK: Eraikina zaharberritua izan da oraintsu, egun duen udaletxe erabilerarako egokitzeko asmoz egindako obren bidez. Beraz, mantentze-obra soil batzuk baino ez ditu behar.


Eraikuntzaren irisgarritasun arazoak konpondu beharko dira, aztertuz igogailu baten prestakuntza, gutxitzen osotasunaren ondare eta arkitektura baloreen afekzioak.



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.1.3 LOBIANO JAUREGIA


Etxe-aurre bikaina du, errenazentista estilokoa, fuste ildaskatuko atearen bi aldeetara harroin batzuen gainean dituen bi zutabeko atelada batekin. Atearen gainean armarrria agertzen da, alde banatara bi lehoi dituela, eta azpian XVI. mendeko usadiora jantzitako gerlari baten irudia agertzen da.


Interesgarria da baita ere sortaldeko etxe-aldea, bigarren solairuan, fatxada nagusiaren antzeko estiloan arku bitartez egina.

Eraikina oso hondatuta dago, jatorrizko egitura andeatua du egin izan dizkioten hainbat gehigarriengatik, zeintzuek gainerako etxe-aldeei guztiz bat ez datozen itxura ematen die aipatutako horien aldean.


PROPOSATUTAKO JARDUKETA

- ERABILERA: Kultur Etxea eta Gazte Informazioaren Bulegoa.
- EGINGO DIREN OBRAK: Eraikina berriki eraberritua da, egungo Kultur Etxe erabilerarako egokitzeko asmoz egindako obren bitartez; beraz, mantentze-obra soil batzuk besterik ez ditu behar.







Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.1.4 ZARRA JAUREGIA (IZELAIETA 14)

Eraikuntza hau kokatuta dago Izelaieta kalean. Bi altuerako eraikina da, bi uretako estalkiarekin, oinarrizko fatxadarekin paralelo kokatzen da. Eraikuntza honek izan ditu aldakuntza nahiko denboran zehar, bestelako kalitate eta baloreekin.

Jatorriko eraikina, XVI. mendekoa, hiru gorputzez osatua zegoen (Izelaieta 12, 14 eta 14 bis). Izelaieta 14 bis-aren behe solairuko zati bat baino ez zen zaintzen, gainontzeko aurri-egoeran zegoelarik. Multzoaren hirugarren elementua, Izelaieta kaleko 12. zenbakiari dagokiona, berriro egin izan da, eta beraz, jada ez da Jauregiaren parte. Ingurumen interesa baino ez du, XVIII. mendeko jauregiaren antzeko ezaugarri formalekin egina baitago.

Zarra Jauregiaren atal nagusia (Izelaieta 14) XVIII. mendean eraiki zen, eta barroko berantiarreko euskal jauregien tipologia bereizgarria du. Etxe-aldea hiru ardatzetan dago banatuta, eta lehen solairuko hutsarteak kuxindurazko azpaduraz daude beteta, beheko solairuan harlanduzkoak diren bitartean. Ateburu sarrerarekin irekitzen da, balkoiak ditu eta bi ezkutu ditugoikaldean (hiru ezkutuen artean), silarriz inguratuak.

Estalkia aldatua izan da orain gutxi, bi isurkitara da, teila arabiarrezkoa, eta egurrezko teilatu-hegalarekin.

PROPOSATUTAKO JARDUKETA

- ERABILERA:
Etxebizitza.
- EGINGO DIREN
OBRAK: Eraikina
nagusia
(Izelaieta 14)
oraintsu
eraberritu izan
da, beraz



mantentze-obra soil batzuk besterik ez ditu behar. Etxe-alde nagusiaren zaharberitzea egin dago. Beharrezko instalazioak jarrita dira. Halaber, estalkia sendotuta da eta aldapa eta materialak bateratuta, tipologiari eta eraikitzeo ezaugarriei eragin gabe.



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.2 2 KATEGORIA. INTERES HISTORIKO ARTISTIKODUN ERAIKINAK

Kategoria honetakoak dira oraindik aitorpen hori izan gabe osotasunean maila handiko balio historiko-artistikoa duten eraikinak, dela antzinatasunagatik, dela kalitateagatik, tipologiagatik, antzeko gutxi egoteagatik edo bitxia izateagatik.

Kategoria honetako eraikinek oso-osorik mantendu beharko dute egitura eta kanpoaldea, baita bere distribuzioa zein berezko elementu arkitektonikoak (eskailerak, atariak, itxiturak, etab.), baldin balio historiko edo arkitektoniko berezikoak balituzte. Hala ere, aldatu ahalko dituzte haien antolamendua eta goian aipatutako elementuak, ondorengo baldintzak betetzen badira: eraikinaren katalogazioari ez eragitea, eta ez izatea, berez, kontserbazioa merezi dutenetakoak, kontserbazioa beti ere beharrezkoa bada esleitutako erabilera berrien eraikuntza berregokitzerakoan.

Kanpoaldean, antolamenduan eta elementu baliotsuetan egin ahal izango diren obrak, beraz, aurreko kategorian azaldutako berberak izango dira.

Obra horiek honakoak izango dira:

- Zaharberritzea.
- Elementuen berritzea.
- Trenkada-multzoen aldatzea, egitura jarkikorrari eta oinarri-tipologiari eragin gabe.
- Instalazioak modernizatzea eta eguneratzea.
- Gehitutako obrak eraistea.

Interesik ez duten gainerako elementuetan eraberritze-planean den edozein obra-mota egin ahal izango da, haien desagerpena edo ordezkapena aurreikusten dutenak barne, beti ere kontuan hartuz esku-hartzea egingo den testuinguru kultural nahiz artistikoa.

INTERES HISTORIKO ARTISTIKODUN ERAIKINAK

1. Torreta Etxea.
2. Zarra Jauregia (Izelaieta 14 bis)

1.2.1 TORRETA ETXEA

Ermu Hiriko eraikuntzarik zaharrena da, XVI. mendeko lehen erdialdean egina. Duen interesa, funtsean, historikoa eta tipologikoa da. Landa izaerako eraikin sendoa da, Erdi Aro berantiarreko arrastoak ditu eta aldapa handi bateko malda baten dago eraikita.

Fatxadaren paralelo den gailurreko eraikina, solairu karratukoa. Gaur egun, kareharria estalkiz jarrita dago, sarrera diren bi arku baizik. Beheko solairua bi leiho ditu leihoburuekin, bere iparraldeko sarrera erdi puntuko arkukoa da(dovela handikoa), eta bere erdiko puntuan "IHS" idatzita daukana. Lehenengo solairua aldameneko sarrera du ekialdean, aurrekoak dituen ezaugarri berdinekin, kanpoko eskailera batzuen bidez igarotzen dena. Oinarrizko fatxadanhiru leiho ditu leihoburuekin galeria bat osatuz. Goiko partean atikoa du, egur-armazoizkoa eta betea, teilazko bi isurkiko estalkiari eusten.

Etxe-aurrea modu lakarrean landutako harlanduzkoa du, eta gainerakoa harlangaitzekoa da. Horien gainean atikoa du, egur-armazoizkoa eta betea, teilazko bi isurkiko estalkiari eusten.

PROPOSATUTAKO JARDUKETA

- ERABILERA: Udalaren Administrazio Zerbitzuak.
- EGINGO DIREN OBRAK: Eraikina oraintsu eraberritu izan da, egun duen Administrazio Zerbitzuen erabilera egokitzeko, beraz mantentze obra soil batzuk besterik ez ditu behar. Eraikinaren sendotze orokorra eta fatxaden zaharberritzea egin da, egungo erabilera egokitzeko barrukoa berriro antolatuta. Teilaberritzea eta estalkiaren egitura sendotzea ere egin da, zuen eraikuntza-tipologia aldatu gabe. Atikoaren solairuko baoak ere arauetara egokitu izan dira.



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.2.2 ZARRA JAUREGIA (IZELAIETA 14 BIS)

Eraikina XVI. mendekoa da, baina jatorrizkotik aipatu Izelaieta kaleko 14 bis zenbakiko lehen solairua baino ez zen gordetzen (Torreta Etxearen antzeko ezaugarriekin). Bigarren solairuan jatorrizko eraikinaren beste arrasto bat agertzen zen: uso-paparoko ezproi interesgarri bat, baina galdu da. Kale honetako eraikin hau erortzeko zorian dago gaur egun, jatorrizko etxe-aldearen zati bat baino ez da zutik geratzen, janba eta hareharritzko arkuaren lehenengo dobela agertzen da.

PROPOSATUTAKO JARDUKETA

- ERABILERA: Etxebizitza.
- EGINGO DIREN OBRAK: Berreraiki behar den Izelaieta 14 bis-ari dagokion eraikinaren birgaitzea egiteke dago. Historiko-artistiko erikuntza bezala hartzen da eta baimendutako interbentzioa C Kategoriako Zaharberritze Kontserbadorea da.



3 KATEGORIA. INGURUMEN INTERESEKO ERAIKINAK

Dituzten osagai batzuen balio partzialarengatik kategoria arkitektoniko berezia duten eraikinak dira. Osagaiak barrukoak nahiz kanpokoak izan daitezke (fatxadak, eskailerak, atariak, teilatu-hegalak, balkoiak, zurgintzakoak, margoenak, etab.).

Sailkapen honetakoak dira, baita, aparteko balio artistikorik ez izan arren barruaren koherentziagatik eta ingurumen-egokitzapena berezia izanagatik eredu direlako jarduketa berrietarako.

Higiezin bat kategoria honetan sailkatzea eragiten duten elementu arkitektoniko eraikigarri eta tipologikoek babes berezia izango dute, aurreko kategorietakoen parekoa. Horietan zaharberritzeak eta elementuen berritzeak baino ez dira egingo.

Kategoria honetan katalogatutako beste eraikinen gainerako zatiak Planean ezarritako betekizunetara egokitu dira, zaharberritze proiektuen bitartez. Zaharberritze horien maila, berriz, Plan berak zehazten duen hirigintza-kalifikazioaren arabera izango da.

INGURUMEN INTERESEKO ERAIKINAK

1.3.1 ERDIKOKALE, 5



1.3.2 VALDESPINA MARKESA KALEA, 3 eta 5



1.3.3 GOIENKALE, 2




Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.3.4 SANTIAGO PLAZA, 1



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.3.5 ALDAPAKUA BASERRIA (ERDIKOKALE 1 ZEHARKALEA)



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.3.6 EMAKUMEEN EXTEA (IZELAIETA 12)



1.4 4 KATEGORIA. INGURUMEN INTERESEKO MULTZOAK

Katalogazio hori dute inolako balio arkitektoniko berezirik izan ez arren ingurumen-interes tipologikoa duten eraikin-multzoak, Ermuko Hirigune Historikoa sortzerakoan nagusi ziren eraikuntza-ezaugarriak gordetzen dituztelako.

Eraikin horiek gorde egin beharko dituzte tipologia-ezaugarriak, baina Planak ezartzen dituen obrak egin ahal izango dira, daukaten hirigintza-kalifikaziora egokituko diren zaharberritze-proiektuen bitartez.

INGURUMEN INTERESEKO MULTZOAK

1. Orbe Kardinala plaza, 4, 5, 6 eta 7 zenbakiak.
2. Erdikokale, 3, 7, 9, 11, 13, 19 eta 21 zenbakiak.
3. Valdespina Markesa kalea, 6 zenbakia.
4. Izelaieta kalea, 2, 4, 6, 8 eta 10 zenbakiak.

1.4.1 ORBE KARDINALA PLAZA, 4, 5, 6, 7 ETA 8 ZENBAKIAK





Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

Orbe Kardinala plazaren atzealdeak



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.4.2 ERDIKOKALE 3, 7, 9, 11, 13, 19 ETA 21 ZENBAKIAK



Erdikokale



1.4.3 VALDESPINA MARKESA KALEA, 6



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

1.4.4 IZELAIETA KALEA, 2, 4, 6, 8,10 ETA ATZEALDEAK



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

2. ESPAZIO PUBLIKOEN KATALOGOA

Katalogazio horretakoak dira konfigurazio aberatsagatik arreta eta esku-hartze berezia izango duten espazio, eremu, ibilbide eta gainerako hirigintza-elementuak. Jarduketok bermatu egin beharko dituzte haien elementu eratzaileak, eta duten edo izango duten balioa nabarmenarazi.

Espazio horietan, katalogoak jarduera azkar batzuk bultzatu nahi ditu, lekuak gelditu ordez haietan eragiteko, egituren eta mugen konfigurazio formalarekin bat datozen hirigintza-kalitateak lortze aldera.

Honako atal hauek bereizten dira:

- Babes bereziko espazioak.
- Lehentasunezko interesa duten ibilbideak.

2.1 BABES BEREZIKO ESPAZIOAK

1. Orbe Kardinala plaza.
2. Valdespina Markesa parkea.


2.1.1 ORBE KARDENALA PLAZA

Azalera: 1860 m²

Esparrua zainduko da, batez ere frontoia.

PROPOSATUTAKO JARDUKETA


- EGINGO DIREN OBRAK: Ez da obra berriren beharrik, konpontze- eta mantentze-obrak baino ez dira behar orain dauden zoladurentzat eta frontoiko hormarentzat. Komeni da baita plazako argiztapena eta tresneria sakon aztertzea, kontuan hartuz ez dezala eragin ez espazioaren magnitudean ez espazioaren hurgunean.



Zentzu honetan, Plan Orokorraren A-07 VI Centenario kudeaketa eremuaren barruan frontoia handitzen duen horman zulo baten irekiera aurreikusten dela azpimarratu behar da, Alde Zaharraren gune ezberdinen arteko ibilbideak errazteko asmoarekin.

Hirigune Historikoaren zentroa eta Cardenal Orbe plaza, Marqués de Valdespina parkearekin lotzen dituen oinezkoentzako espazioak irekitzea bilatzen da, egungo oinezkoentzako ibilbideak hedatuz. Lurzoru osoa Espazio Libreen Tokiko Sistemaza zuzentzen da. Horretarako, Erdikokale-ko (15A zk.) estanko zaharraren eta baserriaren bao baten (1. zk.-ko Erdikokale zeharkalean) eraispena derrigorrezkoa da, frontoitik Erdikokalerako konexio zuzena errazteko.

Eragiketa honek, frontoiaren hormaren eta Cardenal Orbe-ko 9. Zk.-ko etxebizitzaren artean bost (5) metro zabalerako hutsune baten irekiera ahalbideratuko du. Hutsune honen irekierak, espazioen arteko konexio erraza baimentzen du, bien artean dagoen gorabehera txikia gaindituz, horrela irisgarri bihurtuz eta plaza txiki bat sortuz.



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

2.1.2 VALDESPINA PARKEA

Azalera: 6600 m²


Esparrua zainduko da, Jauregitik hurbileko izkinako eraikin txikia, jatorrizko ibilbidetik gordetzen den ubidea, mugak, eta, batez ere, zuhaiztia.

PROPOSATUTAKO JARDUKETA

- EGINGO DIREN OBRAK: Valdespina parkea berritua izan da, beraz mantentze- eta zaintze-lan soilak baino ez ditu behar. Parkea Ego ibaiaren bestaldeko ibaiertzerantz zabaldu zen, Izelaietako parkearen atzealdean zati bat okupatuz. Honako obra hauek ere egin izan dira: parkearen antolamenduarena, ibaiaren berreskuratzearena eta bi aldeetako arteko komunikazioarena. Tresneriaz hornitzeko eta lorategiak bihurtzeko parkearen proiektua ere egikarituta da.



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila



Behin-Betiko Onespena. 2015eko Otsaila

2.2 LEHENTASUNEZKO INTERESA DUTEN IBILBIDEAK

1. **Erdikokale.** Marques de Valdespina kalearekin kale hau elkartzen den puntuan, Santiago Elizari atxikirik dauden parroki gelak kokatzen dira.

Gaur egungo areto parrokiak gehitu dira Plan Orokorren gestio eten esparruaren barruan, AOD-01 OKINZURI bere eraistea egiteko, ahalbidetuz elizpearen kontserbazioa beheko oinplanoan eta gehitze txiki bat balio dena euste bezala erlijio erabilpenari, bitartean, gainontzeko lurzoru izango da oinezkoentzat espazio librea.

Jarduketa honek espazio hura handitzea baimenduko du elizaren absidearen ondoan espazio guzti hori balioan jarriko duen plaza bat sortuz. HHBPB-ak, Plan Orokorrekin koordinatuta, jarduketa hau biltzen du.

2. **Izelaleta kalea.** Izelaleta kalea. HHBPB-ak, Plan Orokorrekin koordinatuta, Alde Zaharrean kokaturiko tartean bere trataera leuntzea proposatzen du, ibilgailuen aurrean oinezkoei lehentasuna emanez. Horrela, egungo bi erreietatik bat kenduz espaloi beheratu bat proposatzen da, hirigunea bera Abeletxe bezalako auzoekin irisgarritasuna hobetzeko asmoarekin.

Proposatzen denez oinezkoentzat jartzea erabiltzeko koexistentzia bide bezala eta gaur egun erdi asfaltatuta dagoenez, berzolatatu beharko da asfalto inpresoarekin edo antzeko materialekin, argituz oinezkoen lehentasuna espazio horretan.

3. **Valdespina Markesa kalea.** HHBPB-ak, Plan Orokorrekin koordinatuta, bere trataera leuntzea proposatzen du, ibilgailuen aurrean oinezkoei lehentasuna emanez.



Proposatzen denez oinezkoentzat jartzea erabiltzeko koexistentzia bide bezala eta gaur egun erdi asfaltatuta dagoenez, berzolatatu beharko da asfalto inpresoarekin edo antzeko materialekin, argituz oinezkoen lehentasuna espazio horretan. Espaloiek ez dituzte lan berriak behar bakarrik behar dira konpontze eta mantentze lanak gaur egun existitzen diren zolatuetan.

4. **Orbe Kardinala zeharbidea.** Kale hau frontoiaren alboko hormaren atzekaldean kokatzen da, Cardenal Orbe plaza eta Erdikokale zeharkalea eta Goienkale kalearen arteko garaiera ezberdintasuna igotzen duena.

Garaiera ezberdintasun hau urteak direla arrapala mekaniko baten bitartez ezarritik konpondu zen, irisgarritasuna kale paraleloan, Cantabria zeharkalean, hobetzeko asmoarekin, Cardenal Orbe zeharkaleak ez baitzuen behar zen zabalera.

Ez dira behar lan berriak, bakarrik behar ditu gaur egun existitzen diren zoladuren eta paretako pilotalekuko (landarediko baztertzearen) mantentze eta kontserbazio lan errazak.

Zeharkale honen itxura Aldapakua baserriaren (Erdikokale zeharkalea 1) egoera txarragatik narriatuta dago. Komenigarria da sakonki aztertzea iluminazioa, ahalegintzen ez interferitzen esparru honen tamainan eta begi bistan.

5. **Santiago Plaza.** Egoera oso onean dago kontserbaziotik. Ez dira behar lan berriak, bakarrik behar ditu gaur egun existitzen diren zoladuren mantentze eta kontserbazio lan errazak.



3. ARKEOLOGIA ONDAREAN KATALOGOA

3.1 INBENTARIATUTAKO KULTURA ONDASUNAK

Kultura Sailburuaren 1994ko irailaren 9ko Ordenaren arabera, Ermuko Hirigune Historikoaren Eremu Arkeologikoari Kultura Ondasun izaera ematen zaio (Monumentu-Multzo kategoriarekin) Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean (1994ko azaroaren 2ko 208/1994 zenbakiko BAO-a). Bertan horri aplikatu ahal zaion mugatzea eta babes erregimena ezartzen da.

Dokumentazio grafikoan, HHBPBk Eremu Arkeologikoaren mugak biltzen ditu. Gainera, ondare horietarako 7/1990 Legea 45.5 artikuluan ezarritakoa bete egingo da.

3.1.1 ERMUKO HIRIGUNE HISTORIKOA

Kronologia: Erdi Aroa XIII.mendea (1372)

Kategoria: Multzo monumentala

Kategoriaren zehazpenak: Ermuko Hirigune Historikoa Zaharraren Eremu Arkeologikoa

Gaur egungo babes maila: Inbentariokoa

Buletina: EHAA 194 zk (11-10-94)

Deskribapena: Jatorrizko herri-barrua, seguraski, bi helbururekin sortu zen: batetik Gipuzkoako muga indartzeko, eta besterik, ohiko pasabide bat, agian Santiago-bidearen adar bat, finkatzeko.

Hiribildua inguratzen zuen harresiari buruz berri ugari daude, baina bere aztarnak, eta oro har hirigunea bera, oso aldatuta daude. Nolanahi ere, partzelazio gotikoaren arrastoak ikus daitezke oraindik harresi zati batzuetan, esaterako, Cardenal Orbe (lehengo Goienkale) kaleko zenbaki batzuetan, Erdikokalen (Martires kalea era Santiago elizak betetako zati handi bat), eta Barrenkalera eta Erdikokalera jotzen duen etxe-multzo bikoitzean. Berehala gainditu zituen herriak muga hauek eta Goienkale sortu zuen (gaur ia plaza eitea duena).


Harresia, antza, Goienkaleko etxeen atzealdetik Barrenkalera zabaltzen zen. Honela, bi kale hauek Artekalerekin batera hartzen zituzten etxe-multzoek halako egitura lauangeluarra mugatzen zuten.

Esparru arkeologikoak jatorrizko harresi zaharrak mugatutako etxe-multzoak hartzen ditu, Loviano jauregia eta ondoko etxeetara zabaltzen da, eta Barrenkaleko etxeen atzealdean bukatzen da.

Ermuko harresiari lotuta dagoen egitura bakarra, 1996. urtean egin zen interbentzio arkeologikoak dokumentatzen du. Bereziki harresi baten hondakinak iparraldean Cardenal Orbe

plazan, silarixkan eraikita, 1,5 metroko lodiera izanda eta ondoko etxearen goikaldean ezartzen dena.

Proposatutako jarduketa: Deklarazio honek, Arkeologi Gune honi eragiten dion edozein lana edo jarduketa mota burutzean, onespena eman dezan Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean dagokion arkeologi proiektua aurkeztu beharko dela suposatzen du. Hau bere egikaritzea baino lehen egingo da, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 45.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.



3.2 BALIZKO ARKEOLOGIA GUNEA

Arkeologikoak izan daitezkeen Eremuak horiek babestea interesatzen den areak dira, bertan arrasto arkeologikoak egon daitezkeela uste delako.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako Sailburuordearen 1997ko maiatzaren 5eko Erabakiaren arabera, HHBPBk mugatutako eremuak biltzen ditu dokumentazio grafikoan. Erabaki horrekin, Arkeologikoak izan daitezkeen Ermuko Eremuen Deklarazioa igori egiten da. Mugatutako eremu horiek honakoak dira:

1. Torreta Etxea (A)
2. Matxin Errota (ikus daitezkeen estrukturarik gabe) (E)
3. Zarra Jauregia (Planoan zehaztutako eremua). Zarra Jauregia zerrenda honetara gaineratzen da. 7/1990 Legeak ezarritako babesaren erregimena zuhurtasun neurria bezala ezartzen da.

3.2.1 TORRETA ETXEA

Kronologia: Ondorengo Erdi Aroa
XI.mendea(1704)


Kategoria: Balizko arkeologiko gunea

Gaur egungo babes maila: Balizko arkeologiko gunea

Buletina: EHHA 106 zk (97-06-05)

Deskribapena: Solairu karratuko eraikina da. Guztiz estalita egon aurretik, bere oinarritzko fatxadan silarri tresneria mantentzen zuen eta beste guztia silarixka, harri-horma, zurezko egitura eta adreilukoa zen.

Beheko solairua, ukuilu edo sotoa, kanpora irekitzen da bi leiho txikien bidez, leihoburuak dituztenak. Iparraldeko sarrera erdi puntuko arkuz eginda dago, dobela handiak ditu eta bere erdiko puntuan "IHS"anagrama idatzita duena.



Oinarritzko solairua ekialdean aldameneko sarrera du aurrekoak dituen ezaugarri berdinekin, kanpoko eskailera batzuen bidez igarotzen dena. Zutabe gainean dauden estalki batez estalita zegoen, gaur egun mantentzen dena. Bere fustea eta bere euskarriaren moldurak Errege Katolikoen estiloa adierazten dute. Oinarritzko fatxadan hiru leiho leihoburuekin agertzen dira galeria bat osatuz, etxebizitzaren funtzioa erakusten dutenak. Hainbat zabalkuntza eta berriztapen izan ditu, azkena horiei kareharriko estalkia eta barruko egitura jartzean datza.

Proposatutako jarduketa:

Arkeologia Eremuetan Arkeologia jarduketak diren esku-hartzeak besterik ez dira onartzen (Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 49. artikuluan; eta urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren 7. artikuluan definituta daude), arkeologikoak izan daitezkeen eremuak zehazteko Erregimena. Edonola ere, jarduketa horiek aurrera eramateko Foru Aldundiek aurretiazko baimena eman beharko dute.

3.2.2 MATXIN ERROTA


Kronologia: Ondorengo Erdi Aroa

Kategoria: Balizko arkeologiko gunea

Gaur egungo babes maila: Balizko arkeologiko gunea

Buletina: EHAA 1064 zk (05-06-97)

Deskribapena: Errota Ermuaren sarreran kokatuta zegoen, mendebaldetik Ermuara igarotzen BI-634 errepidearen eskuinean. Gaur egun dagoen, 1791. urteko eraikin baten hondakinen mendebaldean kokatuta zegoen. Lurzorua, 1991. urteko idatzien arabera laututa izan zen. Ez da errotako inolako hondarrik hautematen eta jatorrizko erabilera produkzioa dela. Gaur egun ez dago inolako osagai arkeologikorik.



Proposatutako jarduketa:

Arkeologia Eremuetan Arkeologia jarduketak diren esku-hartzeak besterik ez dira onartzen (Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 49. artikuluan; eta urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren 7. artikuluan definituta daude), arkeologikoak izan daitezkeen eremuak zehazteko Erregimena. Edonola ere, jarduketa horiek aurrera eramateko Foru Aldundiek aurretiazko baimena eman beharko dute.

3.2.3 ETXE ZARRA (JAUREGIA)

Kronologia: Ondorengo Erdi Aroa

Kategoria: Balizko arkeologiko gunea

Gaur egungo babes maila: Balizko arkeologiko cunea

Deskribapena: Zarra jauregia 12, 14 eta 14 bis zenbakiko lurzoruetan kokatzen da (Izelaia eta kalean).

Eraikinen fatxadak balioetsi ondoren, bi aldi konstruktiboak bereizten dira:

1. ALDIA. Eraikin errenazentistak. 12 eta 14 bis zk.ko eraikinen beheko solairuak momentu honekin bat datozte. 14 bis zenbakia silarreka egin da eta leihoburuko barea mantentzen da gaur egun. Eskuineko janba arku baten lehenengo dobela ere mantentzen da. Horma jauregiakoa baino lodiagoa da.

12. Zenbakiaren eraikin izaera ezin da hauteman kolore gorri eraikita dagoelako, bi hareharrizko arkuen bidez irekitzen da.

2. ALDIA. Jauregi barrokoa. Erdiko aldean solairu berria eraikitzen da (14. Zenbakia) eta 12, 14 bis-ko goiko aldean ere. 12. zenbakiaren loturan ikusi dezakegu nola silarea aurreko eraikinari moldatzen da. 14 bis zenbakian kale kantoia ateburuko sarrera egiteko erabiltzen da.

Proposatutako jarduketak:

Arkeologia Eremuetan Arkeologia jarduketak diren esku-hartzeak besterik ez dira onartzen (Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 49. artikuluan; eta urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren 7. artikuluan definituta daude), arkeologikoak izan daitezkeen eremuak zehazteko Erregimena. Edonola ere, jarduketak horiek aurrera eramateko Foru Aldundiek aurretiazko baimena eman beharko dute.

